



PRENTSA OHARRA 2022.07.26

Euskal eta georgiar literaturak aztertuko dituzte Tibilisin, biltzar akademiko batean

- **‘Identitatea eta bestetasuna: euskal eta georgiar literaturen ikuspegi konparatiboa’** izeneko panela uztailaren 26 eta 27an izango da, Georgiako hiriburuan egiten ari diren Literatura Konparatuaren Nazioarteko Elkartearen (ICLA) XXIII. biltzarraren baitan
- **Literatura konparatuko 2.000 adituk baino gehiagok parte hartzen dute hiru urtean behin egiten den biltzar honetan**

Literatura Konparatuaren Nazioarteko Elkartearen (ICLA, ingelesezko siglen arabera) [XXIII. biltzarra](#) egiten ari da egunotan Tibilisin, Georgiako hiriburuan. Uztailaren 29ra bitarte izango da, arte aurrez aurre eta online, eta mundu osoko 2.000 ordezkari baino gehiago biltzen ditu: literatura adituak, akademikoak, kritikariak, idazleak, itzultzaileak eta editoreak, besteak beste.

1955ean sortua, ICLAk konparatisten arteko elkartrukea eta lankidetzeta sustatzen ditu, bai banaka, bai literatura konparatuko hainbat elkarte nazionalekiko lankidetzaren bidez. Sortu zenetik, hiru urtean behin mundu mailako kongresu bat egiten dute, azkena Macaon (Txina), 2019an. 2022ko kongresuaren gaia hauxe da: ‘Munduko literaturak berriz irudikatzea: globala eta tokikoa, korrante nagusiak eta marjinak’.

Ekitaldia 55 paneletan banatuta dago. Horietako batean, ‘Identity and Otherness: a Comparative Overview of Basque and Georgian Literatures’ izenekoan (‘Identitatea eta bestetasuna: euskal eta georgiar literaturen ikuspegi konparatiboa’), euskal literaturaren eta georgiar literaturaren nortasunari eta alteritateari buruzko gakoak eztabaidatuko dira, elkarrizketa bat sortzeko helburuarekin.



Tibilisiko Estatu Unibertsitatean (TSU ingelesezko sigletan), Euskara eta Euskal Kultura irakurle den Martin Artolak, eta Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendari den Garbiñe Iztuetak, antolatuta, panelak hiru hitzaldi nagusi ditu, Izaro Arroita (UPV/EHU), Paulo Kortazar (UPV/EHU) eta Dato Turashvili (TSU) adituen eskutik. Beste zazpi ponentzia ere egingo dira, kongresurako bidalitako abstract-ak batzorde antolatzaileak onartu ostean.

Alde batetik, panel honen helburua identitatearen kontzeptualizazio literarioari eta, hala dagokionean, euskal identitatearen eta nortasun georgiarraren birnegoziarioari lotuta, bi literaturetako mugarri garrantzitsuenak identifikatzea eta alderatzea da. Bestalde, euskal eta georgiar idazleek euskal eta georgiar identitatearekiko ikuspegi kritikoei egindako ekarpenak eztabaidatzea bilatzen da.

Identity and Otherness: A Comparative Overview of Basque and Georgian Literatures

Chairs: Martin Artola (TSU University) & Garbiñe Iztueta (University of the Basque Country UPV/EHU-Etxepare Euskal Institutua)

Conferencias principales

Izaro Arroita Azkarate: Conflicting memories and families in conflict: Identity and otherness in contemporary Basque literature. University of the Basque Country UPV/EHU

Paulo Kortazar: "National identity in a global world; otherness in a country without a state. The case of Basque Contemporary Literature". University of the Basque Country UPV/EHU

Dato Turashvili: "If the sky in Basque Country looks like the sky in Georgia?" Writer and TSU University

Ponencias

Aitzpea Leizaola: Basques, Mi'kMaqs and Inuits: Transoceanic First Nations encounters in comic and graphic novels. University of the Basque Country UPV/EHU

Monika Madinabeitia: Frank Bergon's Fiction: From Black To White. Mondragon Unibertsitatea / Universidad de Mondragón.

Eneko Bidegain: Laxalt family's Basque American correspondence after Sweet Promised Land. Mondragon Unibertsitatea / Universidad de Mondragón.



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

Kepa Matxain: Transformation of Identity in the 'Bertso-Event': Three Experiences of Crisis.
University of the Basque Country UPV/EHU

Marian Chkhartishvili: Process of National Identity Forging: We vs Others in Nineteenth
Century Georgian Literary Fiction (specific title in progress) TSU University

Zurab Targamadze: Process of National Identity Forging: We vs Others in Nineteenth
Century Georgian Literary Fiction (specific title in progress) TSU University

Sopio Kadagishvili: Process of National Identity Forging: We vs Others in Nineteenth Century
Georgian Literary Fiction (specific title in progress) TSU University

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus